## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1709**

**207/2012 FORU AGINDUA, martxoaren 15koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, arautu egiten da nekazari eta abeltzainei haiek erositako gasolioagatik ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten zati bat itzultzea.**

1/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, urtarrilaren 26koak, zenbait aldaketa egiten ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Zerga Berezien araudian, eta Hidrokarburoen Zergaren otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuari artikulu bat gehitzen dio, hain zuzen ere, 52 ter artikulua. Artikulu horrek nekazariek eta abeltzainek erositako gasolioarengatik ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten zati bat itzul dakien duten eskubidea onartzen du, baldin eta ordaindutako kuota hori aurreko urtean ordaindu badute eta ordaindutakoa Hidrokarburoen Zergaren otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 50.1 artikuluaren 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako zerga tasaren arabera ordaindu badute.

52 ter artikuluaren hirugarren paragrafoan baimena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari Hidrokarburoen Zergaren zati bat itzultzeko prozedura zehazteko, eta zehaztapen horien artean eskatzea du, besteak beste, interesdunek zerga aitorpenak zein errolda aitorpenak aurkezteko.

Ondorioz, nekazariei eta abeltzainei Hidrokarburoen Zergaren zati bat itzuli ahal izateko, ezinbestekoa da itzulketa horiek egiteko prozedura arautzea.

Orain arte, itzulketa prozedura eta itzulketarako eskaera orria urtero onartu izan dira. Agindu honen bidez, behin betikotasuna ematen zaie onartzen diren itzulketa prozedurari eta itzulketarako eskaera orriari.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honen gainean eman duen txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

**1. artikulua. Zati bat itzultzea eskatzeko epea eta eskaera hori egiteko modua.**

Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52.ter artikuluak nekazariek eta abeltzainek erositako gasolioarengatik ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten zati bat itzul dakien duten eskubidea onartzen du. Eskubide hori gauzatu nahi badute, gasolioa erosi zuteneko hurrengo urteko apirilaren 1a baino lehen aurkeztuko dute itzultze eskaera, foru agindu honetan xedatutako baldintzen arabera.

**2. artikulua. Nekazariek eta abeltzainek erositako gasolioarengatik ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten zati baten itzulketa eskatzeko, 050 eskaera-eredua onartzea, bai eta eskaera hori aurkezteko prozedura ere.**

1. Nekazariek eta abeltzainek erositako gasolioarengatik ordaindutako Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuoten zati baten itzulketa eskatzeko 050 eskaera-eredua onartzen da. Eredu hori foru agindu honen eranskinean argitaratzen da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako eskaeretarako 050 eredua ondoko prozeduraren arabera aurkeztuko da:

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1709**

**ORDEN FORAL 207/2012, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 15 de marzo, de regulación de la devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo.**

El Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2010, de 26 de enero, que introduce diversas modificaciones en la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Valor Añadido e Impuestos Especiales, adiciona un nuevo artículo el 52 ter al Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de los Impuestos Especiales, en el que se reconoce el derecho a la devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos, satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que hayan tributado por el Impuesto sobre Hidrocarburos al tipo impositivo del epígrafe 1.4. de la Tarifa 1ª del apartado 1 del artículo 50 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, que hayan efectuado durante el año natural anterior.

En el apartado Tres del citado artículo 52 ter se autoriza al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para establecer el procedimiento para efectuar la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos pudiendo comprender la obligación de que los interesados presenten declaraciones tributarias incluso de carácter censal.

En consecuencia para hacer factible la devolución parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos a los agricultores y ganaderos es necesario establecer el procedimiento para la práctica de estas devoluciones.

Hasta ahora este procedimiento de devolución y el modelo de solicitud de devolución correspondiente se aprobaban anualmente. Por la presente Orden se da carácter permanente, tanto al procedimiento de devolución, como al modelo de solicitud de devolución que se aprueban.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

**Artículo 1. Forma y plazo para la presentación de la solicitud de devolución parcial.**

Los agricultores y ganaderos con domicilio fiscal en Álava a los que el artículo 52 ter del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, anteriormente referido, reconoce el derecho a la devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas con ocasión de las adquisiciones de gasóleo a que hace referencia el mencionado artículo, para hacer efectivo dicho derecho deberán proceder a la presentación de la solicitud de devolución a partir del 1 de abril del año posterior a aquél en el que se realizaron las adquisiciones de gasóleo, en las condiciones y de acuerdo con el procedimiento previsto en la presente Orden Foral.

**Artículo 2. Aprobación del modelo 050 de solicitud de devolución parcial de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo y procedimiento para la presentación del mismo.**

1. Se aprueba el modelo 050 de "Solicitud de Devolución Parcial del Impuesto sobre Hidrocarburos soportado por Agricultores y Ganaderos por la adquisición de gasóleo ", que se adjunta como Anexo a la presente Orden Foral.

2. La presentación de dicho modelo 050 para las solicitudes mencionadas en el apartado anterior se efectuará con arreglo al siguiente procedimiento:

050 eredua Arabako Foru Aldundiaren edozein erregistrotan edo Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren menpeko eskualdeko nekazaritza bulegoetan aurkeztuko da. Eskabidean ondoko datuak jakinaraziko dira:

1. Eskatzailearen identifikazioa: identifikazio fiskaleko zenbakia (9 karaketere), abizenak eta izena, edo sozietatearen izena, eta zerga egoitza.

2. Gasolioa erregai gisa erabiltzeko erabilitako gailuaren kodea, ondoko epigrafeen arabera:

1. Traktoreak.
2. Traktoreez besteko nekazaritza gailuak.
3. Motor finkoak.
4. Beste gailu batzuk.

3. Gasolioa erre duten ibilgailuen matrikula, baldin eta harengatik Hidrokarburoen gaineko Zerga ordaindu badute, alegia, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 50. artikuluaren 1. paragrafoaren 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako tasa ordaindu badute. Aurrerantzean gasolio horri gasolio saritua esango zaio.

4. Gasolio saritua erretzen duten makina edo gailuen fabrikazio zenbakia eta mota.

5. Agiri batean bildutako hornidura edo hornidura multzo bakoitzeko: akturaren zenbakia eta data, erregaia erosi den establezimenduaren txikizkako saltzailearen identifikazio kodea (TSK), eskuratutako gasolio sarituaren bolumena eta horren zenbatekoa (biribilduta, bi zifra hamartarrekin). Itzulketaren onuraduna Hidrokarburo Batzuen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada, onuradunaren txikizkako saltzailearen identifikazio kodea jarri behar da.

Irailaren 16ko Zerga Premiazko Araugintzako 1165/1995 Dekretuaren bidez Arabako Lurralde Historikoan aplika daitekeen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga Berezien Arautegiko 107.1.b) artikuluak xedatutakoa betez, erosketa gasolio sarituaren txeke baten bidez ordaindu bada, aitortzaileak establezimendu berean erositako eta txeke bidez ordaindutako hornigaiak batera adieraziko ditu; hau da, eskabidean erositako litroak, horiengatik txeke bidez ordaindutakoa eta erregaia erosi dueneko saltokiaren txikizkako saltzailearen identifikazio datuak adieraziko ditu.

6. Itzulketei dagozkien transferentziak helbideratutako kontu korrontearen kodea (KKK) eta finantza erakundea jakinaraztea.

**3. artikulua. Egindako hornidurengatik kuotak itzultzea.**

Foru agindu honen 1. artikuluan jasotakoaren arabera aurkezten diren eskaerak ikusi ondoren, Arabako Foru Aldundiak, hala badagokio, eskatzaileek eskaeran adierazitako kontura transferentzia bat eginez itzuliko ditu itzuli beharreko kuotak. Aurretik, ordea, eskaeraren datuak egiaztatuko ditu eta, bereziki, honako hauek: gasolioa erosi duten urtean eskatzaileak, jarduera hauei dagokienez, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak aipatzen duen zergadunen erroldan erroldatuta egon diren ala ez, eta Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko Diputatuen Kontseiluaren 3/2011 Foru Dekretua indarrean sartu zenetik aurrera zergadunen errolda bakarrean erroldatuta egon diren ala ez.

**4. artikulua. Itzulketaren onuradunen betebeharrak.**

Foru agindu honetan arautzen den Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuota itzul dakien eskubidea dutenek eskabidean aipatzen diren hornigaiengatik ordaindutakoa egiaztatzen duten agiriak izan beharko dituzte. Onuradunek agiri horiek lau urtez gorde beharko dituzte, itzulketa eskatu ahal zen egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

El modelo 050 se presentará en cualquiera de los Registros de la Diputación Foral de Álava o en las Oficinas Comarcales Agrarias dependientes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, debiendo constar en la solicitud los siguientes datos:

1º. Identificación del solicitante: número de identificación fiscal (9 caracteres), apellidos y nombre o razón social y domicilio fiscal.

2º. Código correspondiente al medio empleado para la utilización del gasóleo como carburante, de acuerdo con los siguientes epígrafes:

1. Tractores.
2. Maquinaria agrícola distinta de los tractores.
3. Motores fijos.
4. Otros medios utilizados.

3º. Matrícula de los vehículos que han efectuado el consumo de gasóleo que haya tributado por el Impuesto sobre Hidrocarburos al tipo impositivo del epígrafe 1.4. de la Tarifa 1ª del apartado 1 del artículo 50 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, (en adelante gasóleo bonificado).

4º. Tipo y número de fabricación de la maquinaria o artefacto con la que se ha efectuado el consumo de gasóleo bonificado.

5º. Por cada suministro o conjunto de suministros agrupados en un mismo documento: número de factura, fecha de la misma, Código de Identificación Minorista (CIM) del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición, volumen de litros de gasóleo bonificado adquirido, e importe, ambos datos redondeados a dos cifras decimales. En el caso de que el beneficiario de la devolución sea a su vez sujeto pasivo del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, el Código de Identificación Minorista a consignar será el de la persona beneficiaria.

En el supuesto de adquisiciones satisfechas mediante cheques gasóleo bonificado, conforme a lo previsto en el artículo 107.1.b) del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de setiembre, el declarante deberá determinar de forma global por todos los suministros efectuados en un mismo establecimiento y satisfechos mediante la utilización de este medio de pago especifico, la cantidad de litros suministrados, y consignar este dato en la solicitud junto con el importe total satisfecho por este medio de pago y el Código de Identificación Minorista del establecimiento donde se ha efectuado la adquisición del carburante.

6º. Identificación de la entidad financiera y del código identificativo de la cuenta corriente (c.c.c.), a la que deban efectuarse las transferencias de las devoluciones.

**Artículo 3. Devolución de las cuotas por los suministros efectuados.**

En base a las solicitudes presentadas a las que se refiere el artículo 1 de esta Orden Foral, la Diputación Foral de Álava acordará, en su caso, y previa comprobación de los datos de la solicitud y en especial que los solicitantes han estado inscritos en el mismo año en que realizaron las adquisiciones de gasóleo y en relación a estas actividades, en el censo de obligados tributarios al que se refiere la Disposición Adicional Tercera de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, y a partir de la entrada en vigor del Decreto Foral 3/2011, del Consejo de Diputados de 25 de enero, que regula el Censo de los Contribuyentes y obligaciones censales, en el Censo único de contribuyentes, la devolución de las cuotas correspondientes mediante transferencia bancaria a la cuenta indicada por el beneficiario en la solicitud.

**Artículo 4. Obligaciones de los beneficiarios de la devolución.**

Los titulares del derecho a la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos a los que se refiere la presente Orden Foral, deberán estar en posesión de las facturas acreditativas de cada uno de los suministros que se incluyan en la correspondiente solicitud de devolución. La referida documentación deberá conservarse por los beneficiarios durante un período de cuatro años a partir del día siguiente a aquél en que dicha devolución pudo comenzar a solicitarse.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Ogasun zuzendariaren ahalmena.

Ogasuneko zuzendariari eskumena ematen zaio foru agindu honetan ezarritakoa betearazteko behar diren xedapen eta jarraibide guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 15a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

DISPOSICIÓN ADICIONAL. Habilitación al Director de Hacienda.

Se habilita al Director de Hacienda, a dictar las disposiciones o instrucciones necesarias para la ejecución y cumplimiento de lo previsto en esta Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOTHA, produciendo sus efectos desde esa fecha.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2012.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

**NEKAZARI ETA ABELTZAINEK GASOLIOA EROSTEAGATIK JASANDAKO HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGAREN ZATI BAT ITZULTZEKO ESKAERA**

***SOLICITUD DE DEVOLUCIÓN PARCIAL DEL IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS SOPORTADO POR AGRICULTORES Y GANADEROS POR LA ADQUISICIÓN DE GASÓLEO***

**050**

TITULARRAREN DATUAK / *DATOS DEL TITULAR*

IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA LA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**EKITALDIAN EROSITAKO GASOLIOA**
***ADQUISICIÓN DE GASÓLEO EJERCICIO***

**ORRI ZK. / *HOJA Nº* ………. KP./ *DE*……..**

ORDEZKARIAREN DATUAK / *DATOS DEL REPRESENTANTE*

IFZ / *N.I.F.*

DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA / *APELLIDOS Y NOMBRE O RAZÓN SOCIAL*

BANKUETXEKO DATUAK / *DATOS BANCARIOS*

Bezeroaren kontu kodea
*Código cuenta cliente*

| Entitatea / *Entidad* | Bulegoa / *Oficina* | K.D. / *D.C.* | Kontu zenbakia / *Número de cuenta* |
|---|---|---|---|
| | | | |

**ERABILITAKO BIDEA / *MEDIO UTILIZADO***

| **Matrikula - Identifikazio zenbakia** / ***Matrícula - Número de identificación*** | **Mota** / ***Tipo*** | **Deskripzioa** / ***Descripción*** |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

**NEKAZARI ETA ABELTZAINEK GASOLIOA EROSTEAGATIK JASANDAKO HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGAREN ZATI BAT ITZULTZEKO ESKAERA**

**SOLICITUD DE DEVOLUCIÓN PARCIAL DEL IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS SOPORTADO POR AGRICULTORES Y GANADEROS POR LA ADQUISICIÓN DE GASÓLEO**

**050**

**I ERANSKINA**

**ANEXO I**

TITULARRAREN DATUAK / *DATOS DEL TITULAR*

IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA LA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**EKITALDIAN EROSITAKO GASOLIOA**

***ADQUISICIÓN DE GASÓLEO EJERCICIO***

**ORRI ZK. / *HOJA Nº* ………. KP./ *DE*……..**

ORDEZKARIAREN DATUAK / *DATOS DEL REPRESENTANTE*

IFZ / *N.I.F.*

DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA / *APELLIDOS Y NOMBRE O RAZÓN SOCIAL*

**GASOLIO-TXEKE EDO GASOLIO-TXARTELEN BIDEZ EGINDAKO ERAGIKETAK**

***ADQUISICIONES REALIZADAS MEDIANTE CHEQUES Y TARJETAS DE GASÓLEO***

| **Txikizkako SIK / *Minorista CIM*** | **Litro kopurua / *Volumen litros*** | **Balioa / *Valor*** |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

Data / Fecha……………………………………..

Titularraren edo ordezkariaren sinadura / *Firma del titular o del representante*

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

**NEKAZARI ETA ABELTZAINEK GASOLIOA EROSTEAGATIK JASANDAKO HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGAREN ZATI BAT ITZULTZEKO ESKAERA**

**SOLICITUD DE DEVOLUCIÓN PARCIAL DEL IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS SOPORTADO POR AGRICULTORES Y GANADEROS POR LA ADQUISICIÓN DE GASÓLEO**

**050**

**II ERANSKINA**

**ANEXO II**

TITULARRAREN DATUAK / *DATOS DEL TITULAR*

IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA LA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**EKITALDIAN EROSITAKO GASOLIOA**

***ADQUISICIÓN DE GASÓLEO EJERCICIO***

**ORRI ZK. / *HOJA Nº* ………. KP./ *DE*……..**

ORDEZKARIAREN DATUAK / *DATOS DEL REPRESENTANTE*

| IFZ / *N.I.F.* | DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA / *APELLIDOS Y NOMBRE O RAZÓN SOCIAL* |
|---|---|
| | |

**GASOLIOA EROSTEKO ERAGIKETAK / *OPERACIONES DE ADQUISICIÓN DE GASÓLEO***

| Faktura zk. / *Nº factura* | Faktura data / *Fecha factura* | Txikizkako SIK/*Minorista CIM* | Litro kop. / *Volumen litros* | Zenbatekoa / *Importe* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Data / Fecha……………………………………..

Titularraren edo ordezkariaren sinadura / *Firma del titular o del representante*